

# PLAZA **B**ERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

19-4-30 28. ALEA



**Maiatza Saltsan,  
ekitaldiz blai**

6. ORR. ►►

**Hondakin  
berezien gida**

8. ORR. ►►

**Korrika  
argazkitan**

11. ORR. ►►

**Zizurkilgo  
erronkei begira,  
azken elkarrizketan**

3. ORR. ►►



## la 30 ale Udaleko eta herriko berri eskaintzen

2011ko irailean argitaratu zen Plazaberriren lehen alea. Orduz geroztik, ia hutsik egin gabe, hiru hilero iritsi da zizurkildarren etxeetara. Hutsune bati aurre egiteko sortu zen Plazaberri duela 8 urte. Harez geroztik, Udalaren eta zizurkildarren topaleku izan da. Bertan jasota daude herriak bizi izan dituen aldaketak, egin

diren eta ez diren proiektu eta asmoak, arazoak eta erronkak... 8 urtean herriko hainbat kazetarik komunikazio eta parte hartze batzordearen baitan eraman dugu aurrera aldizkari xume hau, borondatez.

Udaleko berri ematez gain, herriko hamaika elkarteren gora beherak ere jarraitu ditugu urteotan: Danena kirol

elkartea, festa batzordeak, Hernandorena kultur taldea, Ziotza pilota elkarteak, euskarazko irakaskuntza eta ikastaro ezberdinetako kideak... Hainbat ekimenen berri izan dugu Plazaberriren aleetan zehar, Zizurkilen dagoen mugimenduaren seinale.

Eta amaitzeko, han eta hemen nabarmendu diren herriarrei ere egin diegu tartea

kontrazalean, eremu askotan ibili eta tarteka nabarmen-tzen garelako zizurkildarrak. Garaiekin batera gauzak berritzea ezinbestekoa dela eta, honakoa da formatu honetako azken Plazaberri, baina nahiko genuke legegaldi berrian ere informazioa helarazteko kateak amaierarik ez izatea.

### 30 ejemplares ofreciendo información del Ayuntamiento

El primer ejemplar de Plazaberri se publicó en septiembre del 2011. Desde entonces no ha faltado a la cita trimestral con los vecinos y las vecinas.

Plazaberri nació para responder a una carencia, la falta de información de la actividad que se realiza en

el Ayuntamiento. Desde entonces ha sido un punto de encuentro entre el Ayuntamiento y los y las zizurkildarras. En los casi 30 ejemplares de la revista están recogidos los cambios en el municipio, los proyectos realizados y los que nos se pudieron realizar y los problemas y retos que

tiene Zizurkil. Además de ofrecer información oficial, durante estos 8 años hemos recogido la actualidad de diferentes entidades de Zizurkil como Danena kirol elkarteak, comisiones de fiestas, Hernandorena kultur taldea, Ziotza pilota elkarteak... Y para finalizar, los y las zizur-

kildarras que destacan en un sinfín de ámbitos han tenido su lugar en la contraportada.

Este es el último ejemplar en este formato, pero quisiéramos que en la nueva legislatura continúen abiertos los canales de información tan necesarios.

# “Zorra neurrira ekarri dugu eta etorkizunerako bide bat marraztuta geratu da”

Azken asteak ditu alkate gisa Joxe Mari Luengok. “Helburu garrantzitsuenak eginda” doanaren lasaitasunarekin hitz egiten du, herriak aurrean dituen erronkak ezkutatu gabe. Luze zabal erantzun ditu Plazaberriren galderak.

**Zure agintaldiko azken egunetan, egiguzu balantze labur bat...**

**Joxe Mari Luengo:** Oro har hartuta, helburu garrantzitsuenak bete ditugula esango nuke. Azken legealdian, hirigintzan, Plazida Otaño liburutegia, Atxulondo kultur etxeko lanak, plazako estalpea eta P.M. Otaño plazaren berritzea besteren artean errealtate bihurtu dira. Ekonomia arloan miloi bat eurotik jaitsi genuen iaz zorra eta horrek ahalbidetu digu aurtén, 8 urtean lehen aldiz, inbertsio baterako zorpetzea. Plazaetxeberrik etorkizuneko atea irekitzen digu he-

rrigunean. Giza eskubideen alorrean, memorian Aranzadirekin egindako lanaz gain, biktimak elkartuta egindako ekitaldia lorpena izan zela azpimarratuko nuke. Kulturean, herri bizia izaten jarraitzen dugu, azpiegitura hobeeekin eta toki izendegia berreskuratu dugu gure helbideetan. Kirolean, elkarlanean jarraitzen dugu taldeekin

**«Orain herria geldirik dagoela diote. Nola ote zegoen orduan 2011 hasieran!»**



## “Hemos encauzado la deuda y hemos logrado dibujar un camino para el futuro de Zizurkil”

El alcalde Joxe Mari Luengo ha ofrecido la última entrevista en el cargo a Plazaberrí. Dice que se va “con la mayoría de los objetivos cumplidos” y habla sobre los retos del municipio en los próximos años. Uno de

los trabajos más intensos estos momentos en el Ayuntamiento es sobre el barrio Bulandegi. “Estos años hemos barajado diversas opciones pero hemos llegado a la conclusión que la mejor alternativa es realizar un

proyecto de calado, una reconversión importante en la urbanización del barrio que implica acordar con la diputación. Queremos que Bulandegi sea un barrio accesible y más amable para los viandantes, esta-

mos trabajando en el aspecto topográfico, con los ingenieros, tengo el convencimiento que el proyecto se hará realidad en la próxima legislatura”. Sin movernos del barrio, Luengo remarca la importancia



*«Herriguneko etxebizitza egitasmoak bideratuta utzi ditugu»*

eta ahal diren hobekuntzak egiten, hezkuntzan ere eskola publikoen azpiegiturak hobetu ditugu... Gehiegi luzatu gabe, uste dut balantze ona egiteko datuak direla eta batzuk saldu nahi duten irudia ez dela egia. Edo orain herria geldirik badago, nik galdetuko nuke nola ote zegoen 2011 hasieran!

## **Herrigunera begira, zertan da etxebizitza proiektuak?**

Luze jo du gaiak baina gaur egun esan dezakegu bideratuta dagoela. Zizurkilgo herriguneari arazo handi bat zuen indar elektrikoarekin, edo hobe esanda indar elektriko faltarekin. Transformadore edo eraldatzaile elektriko berri bat behar zen, eta azkenean akordioa lortu dugu

Udalak eta bi eraikuntza enpresek, bai Etxe Maiteko gunekoak eta baita Plazaetxeberri ondokoak ere. Hiruren artean finantziatuko da. Eta etxebizitza lan horiek gauzatuta, esan dezakegu, Udal etxebizitzaren aukera izango da Udalarik zegokion zatia baliatuz. Plazaetxeberriaren erostekak ere lagundu du horretan. Espero dugu hurrengo urtean

de otro proyecto más a largo plazo, la reconversión en zona de viviendas del polígono de Illunja o el llamado Area 15. "Es una zona industrial antigua, con muchos problemas, estamos convencidos que el futuro de Zizurkil pasa por convertir

esa zona en una zona de viviendas, intentando recolocar las empresas en el municipio. Estamos analizando el camino a seguir con los representantes de la junta de compensación del polígono industrial, es un proyecto complejo pero hay

voluntad por ambas partes, que es lo importante para iniciar este proceso".

## **Variante**

El alcalde sube el tono de la entrevista al hablar de la variante. "Soportamos un vo-

lumen de tráfico que no es aceptable hoy en día, muchos de ellos camiones. Tras largas, la crisis... hace dos años ya pidió el pleno de zizurkil a la diputación que retomara el proyecto, en una moción que presento EH Bildu y conto

## «Bulandegi irisgarriago eta hiritarrago egiteko eraldaketa sakona lantzen ari gara»

etxebizitza lanak martxan izango direla eta hor lanketa bat egin beharko da herriaren beharrei neurria hartzeko. Urte askotan ibili gara norabide bat finkatu nahian herrigunean etxebizitza arloan Udalak zuen lur gabezia zela eta, esan dezaket pozik nagoela nahikoa bideratuta uzten dugulako.

### Elbarrenan ikusten dituzun errokez galdetuko baniu...

Batetik, Bulandegi bidea aspalditik dugu begiz jota. Proiektuaren dimentsioaz jabetutakoan ordea, ikusi dugu hobe zela parte bat egitea baino eraldaketa sakonago batera jotzea eta horretan ari gara hurrengo legealdian errealitate bihurtzeko helburuz. Proiektua zehaztu eta Foru Aldundiarekin adostu behar da, Bulandegi irisgarri eta hiritarrago egiteko. Lanean ari gara arlo topografikoan, ingenieritza arloan... proiektu anbiziotsu baina aldi berean errealista bat egiteko.

Bestetik, Bulandegi bidetik gehiegi aldendu gabe, Area 15eko industriagunearen gaiari heldu diogu. Geroz eta arazo handiagoa duen gunea da, industriagune zaharkitua da erabat, eta uste dugu herriaren etorkizunerako industria hortik atera eta auzune bat sortzea litzatekeela irtenbidea. Bertako jabeen zuzendaritza taldearekin ari gara lanean, bi pertsona izendatuak dituzte etorkizuneko egitasmo hau lantzeko, aurrez ere ahalegin bat egin zen duela 13 urte eta orduan posible izan ez bazen ere, orain aukera dagoela sinestuta gaude. Epe ertaineko proiektua da hau, Udalak bultzatu egin dezake baina dena ez dago gure esku, dena den, baikorrak gara eta uste dugu urte batzuk barru errealitate izango den egitasmoa dela.

### Saihesbidearen inguruan, Udala ez ezik herritar talde bat mobilizatzen ari da...

Eta guk oso ondo ikusten dugu. Saihesbidearena ez da gaurko kontua eta ni pertsonalki konbentzita nago mobilizazioarekin soilik lortuko dugula. Milaka kotxe eta kamioi herri erdigunetik igarotzen zaizkigu eta badirudi inoiz ez dela momentu ona proiektua egiteko. Hasieran krisia zen, baina 2017an jada Zizurkilgo Udalbatzak eskatu

zion modu ofizialean Foru Aldundiari inoizko diru sarrera handienak zituela zioenean bazela garaia proiektuari berrekiteko. EH Bilduk aurkeztu eta PSEk babestu zuen mozioa izan zen, EAJ abstenitu egin zen. Eta zoritxarrez ondorengo bi urteetan orduan susmatu genuena gertatu da, beste proiektu batzuk direla lehentasuna diote, inoiz ez da Zizurkil. Herritar talde horrek eskatuta Asteasuko eta Adunako Udalaren babesa lortu dugu saihesbidea eska-tzeko, ez ordea Villabonarena. Prentsaren aurrean gauza bat diote baina gaur gaurkoz benetako orduan EAJ ez da saihsbidearekin konprometitzen, argi ikusten da hori. Baina, nik uste, lor dezakegula guztion artean, eta herritarrek gidaritza hori hartzea garrantzitsua da, Aldundian dagoena dagoela, ezin dugu gehiago itxaron.

### Erronka eta proiektu handiez ari gara, baina txikiagoak ere izango dira noski...

Hirigintzan jarraituz, Akezko industriagunea txukundu eta hiritartzeko egitasmoa lantzen ari gara azken urteetan. Udalak bere zati txikia badu eta jabe gehienak ados daude horretarako. Zonalde hori utzia dago eta berritzeko lehen urratsa litzateke industriagunea txukundu eta atseginago egitea.

## «EAJ abstenitu egin zen saihsbidearen aldeko mozioan. Gaur gaurkoz ez da saihsbidearekin konprometitzen, prentsaren aurrean bestelakoa dioten arren»

Bestelakoetan, nik kargua utzi aurretik azoka martxan utzi nahiko nuke estalpe berrian. Gauza xumea izango da baina astean behin herriari bizia emateko balioko duela nago. Martxan jartzekoan behar bezala abisatuko dugu eta ea jendeak erantzuten duen.

### Azken mezu bat eman nahi zenuke?

Esan izan dut beste hainbat lekutan, beti ez dugula asmatu badakit, bidean ikasten joan gara, baina egin duguna zintzotasunez egin dugu eta sartu baino egoera hobean uzten dugu Udala, eta uste dugu herria ere baietz. Zorra neurrirra ekarri eta hainbat arlotan etorkizuneko bide bat marraztuta geratu da.

con el apoyo del PSE. El PNV se abstuvo, y ha ocurrido lo que podíamos temer en ese momento, que la diputación se abstiene en este tema, dice que no es prioridad, nunca Zizurkil es una prioridad. No es sólo Zizurkil, el Ayuntamiento

de Asteasu y Aduna nos han apoyado", remarca el alcalde. Luengo ve con buenos ojos la movilización vecinal. "Yo, personalmente, estoy convencido que sólo lograremos compromisos con la diputación mediante movilizaciones.

El Ayuntamiento está para ayudarles, ya hemos esperado bastante durante décadas".

En la entrevista también ha desgranado otros proyectos como la vivienda en Zizurkil goia, operaciones que ve encauzadas, el acondiciona-

miento y urbanización del polígono de Akezko o la puesta en marcha del mercado semanal. "Quisiera ver en marcha el mercado en la bajocubierta de la plaza antes que deje el cargo, creo que dará vida al municipio".

# Maiatza saltsa

Ohi bezala ekitaldiz betea dator Maiatza Zizurkilera. Kataluiniako musikarien bisita izango dugu hasi orduko eta maiatzaren 11an, "erraldioen topaketa" egingo da.



Maiatza Saltsanek urtero astindu bat ematen dio Zizurkilgo kultur bizitzari. Aurtengoak ardatz bat izan gabe, herria bizirik dagoela erakutsi nahi du, herriko talde eta eragile ugari hartuko duela parte horren seinale eta ekitaldien aniztasuna.

## Musikariak

Vilafranca del Penedes herriko musikariak datoz maiatzeko lehen asteburuan eskualdera Loatzoko musika eskolarekin senidetze moduko bat dutelako. Hilaren 2an iritsiko dira, eta hainbat ekitaldi

antolatu dituzte. "3an Altzo herrian egingo zaie harrera ofiziala eta bertan zenbait ekimen izango dira", azaldu digu Maite Amenabar Zizurkilgo kultura zinegoziak. Lo familia ugariaren etxeetan egingo dute hemen egongo diren

egunetan. Eta maiatzaren 4an, Zizurkilen egingo dute ekitaldi nagusia Maiatza Saltsan-ekin bat eginez. "Arratsaldean, 18:00ak aldera kalejira bat eskainiko digute erraldoiekin batera Elbarrenako erdigunean eta ondoren kontzertua 19:00etan Joxe Arregi plazan. Ikusteko moduko kontzertua izango da", nabarmendu du Amenabarrek. Ondoren Zizurkilen bertan afalduko dute.

## Erraldoiak

Maiatza saltsanen aurtengo irudietako bat erraldoi multzo handi batena izango da. "5 urteko ibilbidea du erraldoi eta buru handien konpartsak. Kultura batzordetik erraldioen topaketa bat egiteko ideia sortu zenean, pentsatu genuen polita litzatekeela bost urte hauetan gurekin egon diren taldeetako kideak gonbidatzera", azaldu digu Iker Urruzola Zizurkilgo erraldoi eta buru handien taldeko

## Maiatza Saltsan "gigante"

Maiatza Saltsan volverá a mostrar otra vez la capacidad de Zizurkil para crear cultura. El primer fin de semana de mayo nos visitarán desde la escuela de música de Vi-

lafranca del Penedes ya que tienen una relación especial con Loatzoko musika eskola. Llegarán el 2 de mayo y la actuación principal lo realizarán en Zizurkil el 4 de mayo, sá-

bado. "El recibimiento oficial se les tributará en Altzo el día 3, el próximo día 4, actuarán en nuestro municipio. Sobre las 18:00 de la tarde realizarán una kalejira junto a los

gigantes en Elbarrena y después, a las 19, concierto en la plaza Joxe Arregi", explica la concejala de cultura Maite Amenabar.

# n, "Erraldoia"



Gipuzkoako Txapelketa Zizurkil en izango da bigarren aldiz

sustatzaileak. Talde guztiak itxi gabe badituzte ere, egun osoko jaia antolatzen ari dira herri bazkari eta guzti. Egun borobila izango da arratsaldean dantzak eta erraldoiek bat egingo baitute, Bukalai dantza taldeak antolatuta Dantzari eguna ospatuko da gauean herriguneko Intxaur frontoian Alur dantza taldearen Irradak emanaldia izango da.

## Kirola eta bertsoak

Beste hamaika ekitaldiren artean kirolak ere izango du tarte maiatza saltsan-en ohi gisan. "Maiatzaren 23an, ostegunez, emakumeen birako etapa bat Aiztondon barrena ibiliko da. Zizurkil aitzindaria izan zen emakumeen txirringularitzaren alde egiten eta aurten bira gure kaleetan ikusteko aukera izango da", zehaztu du Amenabarrek.

Hilaren 18an haur eta gazte-txoentzat biatloia ere izango da Zizurkil goian. Eta egun berean, hilaren 18an Gipuzkoako txapelketako saio bat hartuko du Zizurkilek. Gipuzkoa bertsotan lehen faseko saio bat izango da Atxulon-

do kultur etxean arratsaldeko 17:00etan.

Horrez gain, poema musikatua, ipuin kontaketa, nigeriako kulturara hurbiltzeko aukera... herri bizi baten irudia eskainiko digu beste urte batez Maiatza saltsan ekimenak.

7

## Ekitaldietako batzuk

**Maiatzak 4:** Vilafranca del Penedes eta Loatzoko ki-deen kalejira plazan eta kontzertua 19:00etan

**Maiatzak 10:** Poema musikatua Plazidako ikasge-lan 19:00etan, Pianoarekin Maria urroz, bibolinarekin Oihana Artola eta narraz-tzailea Garazi Otegi.

**Maiatzaren 11:** Erraldoien topaketa, herri bazkari eta Bukalaren dantzari eguna Elbarrenan egun osoan ze-har. Gaueko 22:30etan Alur dantza taldearen Irradak emanaldia Intxaur fron-toian.

**Maiatzaren 18:** 11:00etan Biatloia haur eta gazte-txoentzat herrigunear. 17:00etan Gipuzkoako bertsolari txapelketako sailkapen faseko saioa 17:00etan.

**Maiatzak 23:** Emakumeen bira Aiztondon barrena ibi-liko da.

**Maiatzak 31:** Nigeriar janari tailerra eta dastaketa pla-zan iluntzean.

\* Ekitaldi guztiak [www.zizurkil.eus](http://www.zizurkil.eus) atarian eta Zizurkilgo kultura saila-ren ohiko euskarrien bidez zabal-duko dira

## Encuentro de gigantes

Uno de los actos principales de este Maiatza Saltsan se lleva a cabo el día 11, sábado: Encuentro de distintos grupos de gigantes y cabezudos. "La com-

parsa de Zizurkil ha cumplido 5 años y cuando recibimos la propuesta desde la comisión de cultura, nos pareció interesante reunir a las comparsas con las que hemos tenido relación es-

tos años", explica Iker Urruzola, uno de los responsables de la comparsa. Será un día lleno de actividades con comida popular y a la tarde actuación de los y las dantzaris. A las 22:30 en el

frontón Intxaur se podrá disfrutar del último espectáculo del grupo de danza Alur.

Bertsolaris, cuentacuentos, ciclismo... actos para todos los gustos en mayo en Zizurkil.

# Hondakin bereziekin zer, nol

8

Zizurkilgo Udaleko ingurumen sailak argibideak eman nahi izan ditu Plazaberri honetan hondakin berezien inguruan sortzen diren zalantzak argitzeko.



*Matxuratutako mikroondas bat bota nahi nuke. Zer egin behar dut? Hori da 2019ko udaberrian Udaleko ingurumen sailean jaso duten galdera bat. "Urte asko daramatzagu hondakinak bereizten, frakzio edo gai ezberdinak bere aldetik kudeatzen, eta*

*hala ere, egunero ditugu kezka eta duda berriak, nahiko genuke modu errazean azaldu", nabarmendu dute Udaletik. Atalez atal banatuta azaldu*

ditugu ondoko erreportajearen eskura dauden zerbitzu eta aukerak.

## 1-Garbiguneak

Garbiguneak hondakin ezberdinentzako edukiontzi bereziak ditu, herritarrak bertara eraman ditzakeena. Hondakin hauetariko batzuk berriz erabili edo birzikla daitezke, material horri buruz legediak arautzen duen arabera. Garbiguneek hurrengo helburuak dituzte:

- Hondakinetan dauden materialak berreskuratu birziklatzeko
- Kontrolik gabeko hondakinak isurketa ekidin
- Kontrolpeko zabortegean tra-

tamendua izaten duten edo ezabatzen diren hondakinen multzoa gutxitu.

Zizurkildik gertu bi garbigune daude: Tolosako San Blas auzoan eta Andoaingo Leizotz industriagunean goiz eta arratsaldez irekita. Tolosako Mankomunitatea osatzen duten 28 udalerrietako herritarrei, saltokiei, bulegoei, etxeetan obra txikiak egiten dituzten gremioei eta tailer txikiei daude zuzendua. Zerbitzua doakoa eta hurrengo hondakin motak eraman daitezke:

- Obra hondakinak
- Plastikoak: bidoiak, bilgarriak
- Gauza handiak: altzariak, koltxoiak

## Guía pasa saber cómo actuar con los residuos especiales

### Garbigunea/Punto limpio:

Los garbigunes disponen de distintos contenedores para residuos especiales. Cerca de Zizurkil se encuentran dos: En el barrio San Blas de Tolosa y en Andoain, en el polígono

industrial Leizotz, abiertos mañana y tarde. Ofrecen su servicio a los municipios de la mancomunidad de Tolosa, tanto a vecinos y vecinas, negocios, gremios de obras o talleres. Es un servi-

cio gratuito y el usuario puede llevar todos los residuos que y ya se pueden depositar en el sistema habitual y otros especiales como:

- Residuos de obras
- Bidones o envoltorios

grandes de plástico

- Muebles, colchones...
- Chatarra
- Residuos de podas o jardín
- Pales, cajas, madera...
- Neumáticos no provenientes de talleres

# a, noiz?

- Papera eta kartoia
- Metalak eta txatarra
- Inausketako eta lorezaintzako hondakinak
- Egurra: paletak, kaxak, oholak
- Tailerretatik ez datozen autoen neumatikoak
- Arropa
- Beirazko ontziak
- Plastikozko, metalezko eta brik-motako ontziak
- Etxetresna elektrikoak: hozkailuak, garbigailuak, ordenagailuak, telebistak
- Etxeko hondakin arriskutsuak: fluoreszenteak, pilak, sukaldako eta autoetako olioak, bateriak, pinturak, aerosolak, disolbatzaileak, fitosanitariak, tonerrak, etab.

## 2- Traste Zaharrak eta Tamaina handiko hondakinen bilketa

Garbigunera eramatearen alternatiba bat izan liteke

zenbait hondakinen kasuan herriz herriko traste zaharren bilketa zerbitzua. Zerbitzu honen bidez etxeko tresna handiak biltzen dira: altzariak, koltxoak, linea zuriko etxetresna elektrikoak (hozkailuak, ikuzgailuak, etab.), linea gris-marroiko etxetresna elektrikoak (telebistak, ordenagailuak, etab.). Gogoratu, zerbitzu honen bitartez ez direla jasotzen obra-hondakinik, pneumatikorik, paletik, paperik, kartoirik edota zabor-poltsarik. Horretarako, erabil ezazu Garbigunea.

Traste zaharren bilketa erabiltzeko, hondakinak astelehen gauetan utzi behar dira edukiontzi eremuetan (bilketa astearte goizetan egiten da Zizurkilen), eta lehenago 943 676216 telefonora deitu behar da zehazteko zer eta non uzten den.

## 3-Hondakin berezieta-rako etxola eta udaletxe-ko kaxoia

Hondakin arriskutsu eta bereziak biltzeko etxola bat dago Zizurkilen; futbol zelaiko sarrera ondoan hain zuzen ere.

Hondakin mota honi arriskutsu deitzeak adierazten duen moduan, kudeaketa egoki bat gabe, ingurugiroarentzat zein osasunarentzat oso kaltegarri izan daitezkeen hondakinei beharrezko tratamendua ematea dugu helburu, eta ziur gaude etxola honen bidez geroz eta gutxiago direla zabortegetara bideratzen diren hondakin arriskutsuak.



• Electrodomésticos: Frigorífico, lavadora, ordenadores, televisiones....


• Residuos peligrosos como fluorescentes, pilas, aceite de vehículos, pinturas, aerosoles, tóneres, disolventes....

**Recogida de muebles en los municipios:** En el caso de muebles y electrodomésticos, la alternativa llevar al punto limpio puede ser utilizar el servicio de recogida de trastos viejos en los mu-

nicipios. Muebles, Colchones y electrodomésticos se pueden recoger mediante este servicio (no residuos de obras o otros residuos). Para el uso correcto de dicho servicio, hay que depositarlos

los lunes a lado de los contenedores (se recogen los martes a la mañana) y avisar con antelación al teléfono 943.67.62.16.

**La caseta de residuos contaminantes:** En Zizurkil, a



Etxolak, zulo desberdinak ditu dagokion lekura botatzeko hondakin arriskutsuak. Zulo bakoitzak forma desberdina du eta irudi zein testu bidez lagundurik daude. Honakoak dira etxola honen bidez bilduko diren hondakin berezi eta arriskutsuak:

- Aparatu elektriko eta elektroniko txikiak: batidorak, plan txak, patrikako telefonoak, ordenagailuetako teklatuak...
- Kotxeko bateriak
  - CDak eta DVDak
  - VHS bideo zintak eta musika kaseteak
  - Merkuriozko termometroak (plastikozko poltsa itxietan)

- Pilak: alkalinoak, botoi-pilak eta bateria txikiak
  - Erradiografiak
  - Aerosol beteak edo erdi beteak
  - Disolbatzaileak eta garbiketako produktuak (ondo itxietako ontzietan, isuririk egon ez dadin)
  - Tinta eta toner kartutxoak
  - Margoak eta brotxak (ondo itxita)
  - Motore olioia (plastikozko bidonetan eta ondo itxita)
  - Fluoreszenteak, kontsumo baxuko bonbilak eta halogenoak
- Zizurkil goian, hondakin mota hauek denak udaletxeko sarreran dagoen kaxoi batean utzi daitezke.

## 4-Arropak eta Sukaldeko olioaren edukiontziak

Zaharkituak gelditu diren arropak eta erabilerarik ez dutenak edo ohe-arropak (izarak, mantak,...), oihalak, trapeak, zapatak eta antzeko materialak plastikozko poltsa txikietan sartuta arropentzako edukiontziaren bota beharra dago.

Bildutako arropa zaharra lehenbizi aukeratu, eta garbitu eta lisatu ondoren, berrerabili

egiten da behar dutenei banatzeko (irabazi asmorik gabeko erakundeak) edota bigarren eskuko arropa bezala saltzeko. Erabiltzeko moduan ez dauden arropak garbitasunerako trapeak egiteko erabiltzen dira, arbeletako ezabagailuak egiteko, material isolatzaileak, aulkietako betegarriak, eta abar.

Etxeko sukaldean erabiltzeko olioia edukiontzi laranjietan biltzen da. Plastikozko botila edo brik ontzietan, ondo itxita, edukiontziaren barruan. Ez da gomendagarria beirazko botila edo potoak erabiltzea, edukiontziaren utzitakoan hautsi egin baitaitezke. Gogoratu, edukiontzi hauetan landare olioia biltzen dela eta ez auto edo kotxeetako olioia (Horretarako, etxeko hondakin arriskutsuak uzteko birziklapen etxolak erabili edo Andoain edo Tolosako garbigunera eraman.)

Zizurkilgo arropentzako edukiontziak eta sukaldeko olioarenak tren geltoki ondoan, Zizurkilgoian eliza atzeko aparkalekuko ekarpen gunean eta Bulandegi bidea 17 atariko aparkalekuan daude.

lado del campo de fútbol se encuentra una caseta para residuos potencialmente contaminantes. Sin una gestión adecuada, puedes resultar peligroso tanto para el medioambiente como para la salud. La caseta dispone de distintas cajas para distinto tipo de objetos. Estos son

los residuos que hay que depositar en la caseta: Aparatos eléctricos pequeños como batidoras, planchas, teclados de ordenadores, teléfonos móviles..., CDs, y DVDs, Pilas, radiografías, aerosoles, tinta y tóner, brochas y pintura (bien cerrados) fluorescentes y bombillas...

**Ropa usada y aceite:** Para ropa usada y aceite tenemos tres contenedores en el municipio. La ropa o sábanas, mantas... usadas hay que depositarlas en el contenedor en bolsas cerradas. En cuanto al aceite que utilizamos en casa, hay que depositarlo en brick

o botellas de plástico bien cerradas, no en botellas de cristal. Los contenedores se encuentran al lado de la estación de tren, en Bulandegi 17 y en Zizurkilgoia detrás de la iglesia.

Hagamos un uso responsable de los residuos, por el bien de todos y todas.

## Goizaldean ere, euskararen alde!

Zizurkilgo korrika batzordeak antolatuta, apirilaren 12 gauean Korrika afaria, petoen banaketa, fusio dantza ikuskizuna eta Dj-a izan ziren goizaldeko 3retan Korrika herrira iritsi zen arte. Ohi bezala, jendetza izan zen euskararen aldeko lasterketan parte hartzen.



11



# OIZEDER MAYO



## “Txikitan irrati kasete batean elkarrizketak egiten aritzen nintzen”

Oizeder Mayo zizurkildarra Gaztea irratiako ahotsetako bat dugu azken urteetan. Musika eta komunikazioa ditu pasio eta mikrofono aurrean bezain bizi erantzun ditu Plazaberriren galderak.

### Musikarekiko zaletasuna ala irratiarekiko, zer izan zen lehenago?

Biak bateratsu. Musika betidanik interesatu izan zait eta irrati ere bai, txikitan irrati kasete bat oparitu zidaten eta jendea elkarrizketatzen aritzen nintzen... Gainera Gaztearen entzule fina naiz aspalditik eta emailak bidaltzen nituen, garai hartan hori zen komunikatzeko modua! Gero, telebistan musika saioak jarraitzen nituen, Joxeina Etxeberriak egiten zuen eklipsea ETB1en edo Musica SíTVen.

### Gogoan duzu zure lehen irrati esperientzia?

Tolosan ikasten nuen eta bertan irrategintza zegoen hautazko moduan. Horren bitartez Euskadi Irratira joan ginen saio txiki bat grabatzera. Niretzat amets bat izan zen, eta esan nuen, nik honetan lan egin nahi dut!

### Noiz eta nola hasi zinen Gaztean?

Ia kasualitatez. Duela bost bat urte nirekin ikasi zuen ikaskide batek esan zidan casting bat egiten ari zirela,

eta ni orduantxe lanik gabe nengoenez nire grabazioa bidali nuen kantu batzuk aurkeztean, elkarrizketa bat egin zidaten eta horrela hasi nintzen.

### Zertan aritzen zara orain?

Nik larunbatetan Top Gaztea aurkeztean dut Oihan Vegarekin batera. Top Gaztea da gure entzuleen kantu gustukoenen zerrenda, 30 kantuko zerrenda bat. Horretaz gain, gaur egun irrati multimedia denez, sare sozialak asko zaintzen ditugu... Pentsa, lehen emailak bidaltzen genituen eta hor geratzen zen. Orain ordea, sare sozialen bitartez hartu eman handiagoa dugu gure entzuleekin, euren iritzia entzunarazteko aukera gehiago dute entzuleek, eta whatsapp edo instagram bidez bereziki, etengabeko harremana dugu.

### Musika jartzaile edo programan aurkezle nahia go?

Erdi eta erdi. Musika aurkeztea ni bakarrik mikrofonoan irrati formula gisa gustatzen zait, baina hartu emana en-

tzuleekin ere oso polita da. Batzuetan pentsatzen duzu zure lanak ez duela eragin handirik baina bapatean entzule batek mezua bidaltzen dizu esanez egun txarra izan duela baina zurekin buelta eman diola. Hori ikaragarri da.

### Zizurkilgo azken korrika festan DJ lanetan ikusi zintugun, arlo honetan ere aritzen zara?

Tarteka bai. Txikitatik gustatu izan zait musika jartzea, lagunekin play zerrenda beti nik egin izan dut eta etxean nire nahasketak ere aspalditxotik egiten ditut. Orain pixkanaka hasi naiz musika animatzaile moduan festa batzuetan eta ezkontzetan. Eta gozatzen dut DJ bezala ere.

### Zer behar du DJ on batek?

Komunikatzen jakitea eta batez ere, aurrean duzun jendeak behar duena jakin. Kantu bakoitzaren erantzuna ikusi, konturatu 180 graduko bira behar duen edo ondo doan, ze adinetako jendea duzun, plaza irakurtzea azken finean.

### Gaztea zara oraindik, baina urte batzuk barru ere Gaztean ikusten zara ala beste zerbait probatuko zenuke?

Bizitzan dena eboluzioa da. Momentu honetan heimen nago, urte batzuetara auskalo. Ez daukat arazorik beste zerbaitetan aritzeko. Musikarekin lotua badago eta umorea tartean bada, askoz hobeto.

### Talde berriren bat gomen-datuko al diguzu....

Nazioartean, Billie Eilish aipatuko nuke, 17 urteko neska bat da, oso iluna eta potentea. Eta gure artean Villabonan hasi berria den talde bat, Habi, itxura bikaina du taldeak.

### Esaiguzu...

### Zizurkilgo pertsonaia bat:

Garazi, lore dendakoa, beti umoretsu aurkitzen dut.

### Txoko kuttun: Asteasurako bidegorria paseorako.

**Zer dago faltan?** Txakurrekin lasai ibiltzeko gune zabal bat.

# B



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria  
Herritarren Parte Hartze  
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:  
SS-1118-2011

Harremanetarako:  
plazaberri.zizurkil@gmail.com  
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,  
Teodoro Hernandorena 6,  
20.159 Zizurkil.  
Tel. 943-691012  
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak,  
Ernio Bidea 9A, beheak,  
20.159 Zizurkil.  
Harrera Orokorra  
Tel. 943-693066  
Kultura, Euskara, Hezkuntza,  
Gazteria y Kirola Saila  
Tel. 943692495  
Fax 943-693674.